NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

5445

EBAZPENA, 2008ko irailaren 17koa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariarena, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariaren 2007ko azaroaren 12ko Ebazpena aldatzen duena. Ebazpen horrek 2008. urtean aisialdirako ontziak gobernatzeko titulazioak eskuratzeko ohiko azterketen deialdia egiten zituen.

Transferentzien Batzorde Mistoaren 1994ko maiatzaren 31ko Akordioa onetsi zuen uztailaren 12ko 290/1994 Dekretuan uretako kiroletako eta urpeko kiroletako irakaskuntzako funtzio eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruz ezarri zena kontuan izanik,

Zuzendaritza honek, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala finkatu zuen urriaren 11ko 290/2005 Dekretuko 15. artikuluaren bidez emandako ahalmenak erabiliz, honakoa

EBATZI DU:

2007ko azaroaren 12ko ebazpena aldatzea, eta 4. deialdiari yateko patroia eta yateko kapitaina titulazioak gehitzea, ondoren azaltzen den moduan:

Azterketa teorikoak:

* 4. deialdia.– 2008ko azaroan, ondoko titulazio hauek eskuratzeko:

a) Oinarrizko nabigazioko patroia (2008ko azaroaren 3an).

b) Aisialdirako ontzietako patroia (2008ko azaroaren 4tik aurrera).

c) Yateko patroia (2008ko azaroaren 10ean eta 11n).

d) Yateko kapitaina (2008ko azaroaren 12an eta 13an).

Deialdiaren oinarriak 2007ko azaroaren 12ko Ebazpenekoak izango dira.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 18a.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendaria,
JUAN CARLOS ZULOAGA EIZAGIRRE.

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

5445

RESOLUCIÓN de 17 de septiembre de 2008, del Director de Desarrollo Rural y Litoral, de modificación de la Resolución de 12 de noviembre de 2007, del Director de Desarrollo Rural y Litoral, por la que se convocan exámenes ordinarios para la obtención de titulaciones para el gobierno de embarcaciones de recreo durante el año 2008.

De acuerdo con lo previsto en el Decreto 290/1994, de 12 de julio, por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias de 31 de mayo de 1994, sobre traspaso a la Comunidad Autónoma del País Vasco de las funciones y servicios en materia de Enseñanzas Náutico-Deportivas y Subacuático-Deportivas,

Esta Dirección, en uso de las facultades que tiene atribuidas en virtud del artículo 15 del Decreto 290/2005, de 11 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación,

RESUELVE:

Modificar la Resolución de 12 de noviembre de 2007, y añadir a la 4.ª convocatoria las titulaciones de patrón y capitán de yate, de la forma que se cita a continuación:

Exámenes teóricos:

* 4.ª Convocatoria.– En el mes de noviembre de 2008, para la obtención de las siguientes titulaciones:

a) Patrón para Navegación Básica (el día 3 de noviembre de 2008).

b) Patrón de Embarcaciones de Recreo (a partir del día 4 de noviembre de 2008).

c) Patrón de Yate (los días 10 y 11 de noviembre de 2008).

d) Capitán de Yate (los días 12 y 13 de noviembre de 2008).

Las bases de la convocatoria serán las de la resolución de 12 de noviembre de 2007.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de septiembre de 2008.

El Director de Desarrollo Rural y Litoral,
JUAN CARLOS ZULOAGA EIZAGIRRE.